

Tamalez, AHTko lanak honez gero Donostian

Antondegín, lan eremuko zuhaitzak, batzuk ehun urtetik gorako haritzak moztu zituztenetik, asteak daramatzate lur mugimenduak egiten. Abiadura Handiko Trenako obra eroa hementxe daukagu. Eta zertarako? Herritarron beharrak eta lehentasunak beste batzuk dira. Ez al dira izango enpresa eta alderdi politiko batzuen beharrak? Haritzalde Naturzaleen Elkartean lanak bertan behera uzteko eskatu nahi dugu eta Donostiako Udal Ingurumen Aholku Kontseiluari honen inguruan iritzia emateko eskatu nahi diogu.

Egun hauetan komunikabideek darabilte AHTren aferá eta gogora ekarri digute noraino iritsi daitekeen burugogorkeria, itsutasuna eta zentzugabekeria. Krisi larrian gauden honetan, aurrekontuak behera doazenean eta arlo guztietan moztén ari den bitartean, batzuek egoskor darraite beharrezkoa ez den proiektua bultzatzen. Ingurumen gaineko inpaktuak larriak badira ere eta gure ingurune naturala kaltetzen ari bada ere, bada zerbait, posible bada, askoz larriagoa, ditugun beste beharrentzat ezinbestekoa den dirua xahutzen ari dira, eta okerrena, hurrengo legegaldietako eta belaunaldiko etorkizunari berari zama jarri diote. Izan ere, aurrera eginez gero, ibilbidea bukatu ez ezik, hirietako sarbideak ere eraiki beharko dituzte, eta martxan jarritz gero, etengabe diruz lagundu “bideragarria” izan dadin. Hots, gure dirua eta geurea ez dena gastatzen ari gara, etorkizuneko aurrekontuak baldintzatuz.

Beraz, esan bezala, ekologia kontua baino taxuzko gauza da, zentzuzko zerbait. Nola liteke posible gastu hori defendatzea eta aldarrikatzea oinarrizkoa den osasunean murrizten ari denean? kulturen eta hezkuntzan moztén ari denean? Guretzat ez dago ulertzerik baldin eta ez bada atzetik ezkutuko interesak daudelako edota itsukeria hutsagatik.

Urte luze hauetan guztietan gezurraz gezurra ibili dira, gizarteari adarra joka. Batere ekologikoa ez den proiektua berdez margotzen saiatu dira eta behin eta berriz datuak aldatzen joan zaizkigu. Kosteá ere oso aldakorra izan da, badakigu egitan zenbat diruz ari garen? “Y” delakoaz aritu direnean hiriguneekiko loturak eta geltokiak ez zeuden aurreikusita. Berriro diogu, jendeak, herritarrok ba al dakigu zenbat kostatuko zaigun? Erantzuna garbia eta erraza da: EZ! Gezurrak, eta informazio aldakor eta nahasia: Zama-garraio ezinbestekoa errepideak hustutzeko, abiadura

handikoa, tren azkarra.... Hiriburuak lotuko ditu, baina herriak? Zenbatek erabiliko dute eta zenbatek erabiltzen dituzte egun ditugun beste gertuko horiek?

Eta garraioaz aritu behar badugu, zergatik hainbeste atzerapen hamarkada bat baino gehiago indarrean behar zuen txartel bakarra ezartzeko? Zergatik alderdi politiko horiek eta interesatu horiek guztiek ez dute indar berarekin aldarrikatu aldiriko trenen hobekuntza? Ez al da lotsagarria 2013an oraindik nola dauden geltokiak, trenetara elbarrituek beraien kabuz igotzerik ez dutela? Zenbat hildako izan dira gaizki egokituriko geltoki eta pasabide horietan? Horretaz aldiz, ixil-ixilik daude. Beharrezkoa dena, gertukoa, erabiliena ez badute konpondu hamarkadetan, nola ausartzen dira eliteentzat aurreikusitako garraiobidea bultzatzen? Herritar gehienok zenbatetan erabiliko dugu batere merkea izango ez den zerbitzua? Bitartean, oraingo garraio publikoa, berez oso garestia dena, etengabe igotzen. Gu trenaren alde gaude eta azpiegiturak hobetzearen alde, baina ez behar ez dugun proiektu haundiki-erraldoi eta suntsitzaile honen alde. Ea noizko txartel bakarra RENFEn ere, ea noizko berrikuntzak sare horretan.

IZAN GAITEZEN ZENTZUDUN, AHT GELDITU!

Donostian, 2013ko azaroaren 5ean

Harremanetarako: 609 420 438 / naturzale@haritzalde.org

www.haritzalde.org